

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mari Asun Azpiri Mandiola

*Eibar,
Gipuzkoa
(1946)*

Aurkibidea



Biografia



Eibarko Aginaga auzoko Larrañeta baserrian jaio zen 1946an. Arrate bailarako Mendigoitxi baserriko Bizente Aretarekin ezkondu zen eta bertara joan zen bizitzera. Landare-izen ugari dakizki eta horiek jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Zintak

AB-121

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 1999-07-20
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Audio Analog

AB-122

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 1999-07-20
- **Iraupena:** 18 min
- **Euskarria:** Audio Analog

AB-259

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2000-12-11
- **Iraupena:** 95 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

EIB-019

- **Proiektua:** Euskal Herriko txori eta animaliak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2001-01-01
- **Iraupena:** 45 min
- **Euskarria:** Audio Analog

EIB-699

- **Proiektua:** Eibarko ermitak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2020-09-28
- **Iraupena:** 68 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Aingeru-lora; ailorba

- **Erref:** AB-259/002
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:01:52. **Bukatu:** 00:04:32

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

"Aingeru-loria" edo kalendula, oso ona da edema eta infekzioentzat. Mojek asko erabiltzen dute. Ailorbak gustu txarra du eta ganaduaren esnea eta okelaren zaporeak aldatzen ditu.

2. Behieri ematen zaien belarrak

- **Erref:** AB-259/003
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:04:32. **Bukatu:** 00:05:31

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Behiei ematen zaien belar motak. Kardo-horia, esnea emateko belarrik onena da. Alpapa lehortuta, behiari emateko belar onena da. Elbitza.

3. Aranaren lora, tentsioarentzat ona

- **Erref:** AB-259/005
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:06:12. **Bukatu:** 00:07:34

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Aranak, patxarana egiteko eta sabeleko mina kentzeko. Udaberrian ematen duen lora zuria, ona da bihotzerako eta tentsioarentzat. Aran-zuriak fruitu gorria dauka.

4. Azeri-buztana; Garua

- **Erref:** AB-259/007
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:08:19. **Bukatu:** 00:10:56

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Azeri-buztanak zorriak hiltzen ditu. Sabeleko harriak apurtzeko ere ona da. "Garua"-rekin egiten da simaurrik onena. Ira edo "iria".

5. Aitona-belarra txarra da

- **Erref:** AB-259/008
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:10:56. **Bukatu:** 00:12:18

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Aitona-belarra, "kuku-frakian" familiakoa da eta animaliek ez dutenez jaten, txarra da.

6. Ezkurak

- **Erref:** AB-259/009
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:12:18. **Bukatu:** 00:13:52

Gaia(k):

- Natura » Flora

Laburpena:

Amerikako haritzari "haitza" deitzen diote. Hosto politak ditu. Haritzaren ezkurak, basurdeek eta azeriek jaten dituzte. Usoei eta zozoeri ere gustatzen zaizkie ezkurak. Haitzen artean egoten diren perretxikoak, onak izaten dira.

7. Alberretxikoak eta albaraka

- **Erref:** AB-259/011
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:13:58. **Bukatu:** 00:14:58

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Alberretxikoak. Albarakak oso usain ona dauka eta sukaldatzeko ere erabiltzen da. Infusioetan erabili izan du.

8. Albitza edo "elbitza"

- **Erref:** AB-259/013
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:15:32. **Bukatu:** 00:18:03

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

"Elbitza" deitzen zaio albitzari. Txahal jaioberrientzat oso ona da albitza, baina

ganaduari orokorrean ez zaio gustatzen. "Haixen-belarra" baratzean ateratzen da eta barazkiak hiltzen ditu.

9. Albaraka, garai bateko perfumea

- **Erref:** AB-259/015
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:18:40. **Bukatu:** 00:20:28

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Albaraka, perfume bezala erabiltzen zen garai batean. Gizonezkoek belarri atzean eramaten zuten albarakaren hostoa eta emakumeek kolkoan. "Maixorania" ere erabiltzen zen, baina gaur egun ez dago. Erromeriara joateko, gizonezko batzuek larrosa edo krabelin bat jartzen zuten paparrean.

10. Alpapa, belarrik onena eta garestiena

- **Erref:** AB-259/019
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:22:50. **Bukatu:** 00:24:59

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Alpapa, belarretan onena da. Behien esnea hobetzen du. Baserrian ereiten dute alpapa, baina erosiz geroz belarrik garestiena da. Nola ereiten den alpapa. Alpaparen lorea.

11. Altzaren egurra, zestogintzarako

- **Erref:** AB-259/022
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:25:55. **Bukatu:** 00:26:55

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Altzaren egurra, garai batean zestagintzarako erabiltzen zen. Gaztainondoaren egurra.

12. Apioa eta "mielua"

- **Erref:** AB-259/026
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:29:01. **Bukatu:** 00:30:02

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Apioa zirkulazio-sistemarentzat ona da. Usain gogorra dauka. Behiek ez dute "mielua" jaten.

13. "Aratuste-loria" eta "arto-putza"

- **Erref:** AB-259/028
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:30:45. **Bukatu:** 00:33:02

Gaia(k):

- Natura » Flora

Laburpena:

"Aratuste-lora". "Arto-putza". Masustak.

14. Asto-larrosa eta artoaren lorea

- **Erref:** AB-259/032
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:34:03. **Bukatu:** 00:36:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Natura » Flora

Laburpena:

Landare haztegietan, "asto-larrosa" erabiltzen da larrosa txertatzeko. "Artia" edo artoaren loreak, beherakoarentzat ona da. Sendabelarrak animalietan ere erabiltzen dira.

15. "Arta-berdia" edo arto berdea

- **Erref:** AB-259/034
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:36:05. **Bukatu:** 00:37:50

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

"Arta-berdia" animalieri ematen zaie.

16. Sendabelarrak: borraja, txikoria,

- **Erref:** AB-259/037
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:40:14. **Bukatu:** 00:41:57

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

"Asto-perejila" edo gezurrezko perrexila. Borrajaren lorearekin infusioak egiten dira, gripea sendatzeko. Txikoria eta eskarola, azido urikoarentzat onak dira.

17. "Asto-belarriak" letxugaren familiakoak dira

- **Erref:** AB-259/038
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:41:57. **Bukatu:** 00:43:02

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

"Asto-belarriak" letxugaren familiakoak dira eta lore horia botatzen dute.

18. "Aulamua"

- **Erref:** AB-259/040
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:43:08. **Bukatu:** 00:44:29

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Natura » Flora

Laburpena:

"Aulamua" ganaduak gustora jaten du, dena haziz beteta dagoelako. Lur landuetan hazten da, porruen inguruan.

19. Baba mota ezberdinak

- **Erref:** AB-259/044
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:47:38. **Bukatu:** 00:50:00

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Babarrun mota asko daude. baba-baltza, napar-babia, tolosakoa, zuriak, gorriak...

20. Belar-beltza, lekaitxio-belarra eta baso-krabelina

- **Erref:** AB-259/045
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:50:00. **Bukatu:** 00:53:06

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Natura » Flora

Laburpena:

"Baso-zigarrua" asko ateratzen da Arrate inguruan. "Bedar-baltza" uraren inguruan hazten da eta sustrai-beltzak ditu.

21. "Urre botoia", Domusantuetako lorea

- **Erref:** AB-259/048
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:56:27. **Bukatu:** 00:57:59

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Kentzekoa

Laburpena:

San-belar bota ezberdinak. "Urre-botoia", Domusantu eguneko lora-sortak egiteko erabiltzen dira. Urrelili edo krisantemoaren familiakoa da.

22. "Matrikaria", sendagai guztietan erabiltzen da

- **Erref:** AB-259/049
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:57:59. **Bukatu:** 00:59:07

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

"Matrikaria", sendagai guztietarako erabiltzen den landarea da. "Bedar-miña", tentsioa jeisteko erabiltzen da.

23. "Bedar-latza", eztularentzat eta hotzeriarentzat

- **Erref:** AB-259/051
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:59:30. **Bukatu:** 01:00:39

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

"Bedar-latza", belar txarra da baina hotzeria eta eztula tratatzeko ona da. "Kukurruku eztul-bedarra" deitzen dio Maria Asunek. Oso latza da.

24. Belarriko mina kentzeko belarra

- **Erref:** AB-259/052
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 01:00:39. **Bukatu:** 01:01:48

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Belarriko mina kentzeko belarra erabiltzen zuten, belarriko minarentzat. Landarearen barruko likidoa botatzen zen belarrira. Aloe veraren familiakoa da. Aginagan (Eibar), etxe guztietan egoten zen, teilatuetan ateratzen zelako.

25. Sendabelarrak eta landareak

- **Erref:** AB-259/054
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 01:02:32. **Bukatu:** 01:04:18

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Berroa ("berrua"), oso ona da ulearentzat. Berbena. Bildots-egurrari "sorgin-egurra" esaten dio.

26. Eguzkilorea

- **Erref:** AB-259/056
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:04:25. **Bukatu:** 01:05:55

Gaia(k):

- Natura » Flora

Laburpena:

Eguzkilorea, kardu-latzaren familiakoa da. Kardu-latzari ez diote lagatzen loratzen. Eguzkirik ez denean egoten, eguzkilorea beheruntz begira egoten da, lo bezala.

27. Borraja eta "bizixo-bedarra"

- **Erref:** AB-259/057
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 01:05:55. **Bukatu:** 01:07:33

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Bi borraja mota daude, urdina eta zuria. Lurraren arabera, bata edo bestea ateratzen da. Odola garbitzen du. "Bizixo-bedarra".

28. Intsusa mota ezberdinak; "ipitxa" eta "itxuskixa"

- **Erref:** AB-259/065
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 01:17:34. **Bukatu:** 01:21:35

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Natura » Flora

Laburpena:

Intxusari "flota" ere esaten zaio. Bi intsusa mota daude: batek sustrai oso handiak ditu eta bestea zuhaitz bat da. Intsusaren hosto lehorrak lotu eta ogia egiteko labea garbitzen zen. "Ipitxa" deitzen zioten tresna horri. "Itxuskixa"-rekin erratz bat egiten zen, korta garbitzeko.

29. Hepatitisa sendatzeko, "horma-bedarra"

- **Erref:** AB-259/068
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:24:02. **Bukatu:** 01:25:55

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

"Gibelerako-bedarra" edo "horma-bedarra", hepatitisa sendatzeko erabiltzen da. Norbaitekin arazoak izan zituen belar honen propietateak zirela eta.

30. Gaztaina eta itxaur mota ezberdinak

- **Erref:** AB-259/070
- **Iraupena:** 0:03:46. **Hasi:** 01:26:04. **Bukatu:** 01:29:50

Gaia(k):

- Natura » Flora

Laburpena:

Andere-mahatsekin likorea egiten da. Gaztaina eta intxaur mota ezberdinak daude. Enbor batzuetan perretxikoak ateratzen dira.

31. Aginaga auzoan, Eibarko euskara

- **Erref:** EIB-699/003
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:02:14. **Bukatu:** 00:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Aginaga auzoko Larrañeta baserrikoa da Mariasun. Nahiz eta Bizkaiarekin mugan egon, ez dute harreman haundirik izan Markinarekin. Euskara ere ezberdina da. Beraien amonak euskara batuan hitz egiten zuen.

32. Maiatzean letaniak, Aginagatik Arrateraino

- **Erref:** EIB-699/005
- **Iraupena:** 0:04:28. **Hasi:** 00:03:44. **Bukatu:** 00:08:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Bizentek eta Mariasunek Usartzako erromerian ezagutu zuten elkar. Asentsioetan letaniak egoten ziren, Aginagako Oregizar baserritik hasi eta Arrateraino. Lagunartean joaten zen Mariasun.</p>

33. San Martin ermita, Arrate bailaran

- **Erref:** EIB-699/006
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:08:12. **Bukatu:** 00:10:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

San Martin ermita Arrate bailaran dago. Inguruko baserriak aipatzen dituzte.

34. Mendigoitxi baserrikoen hilobia San Andres parrokian

- **Erref:** EIB-699/007
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:10:43. **Bukatu:** 00:12:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

San Andres parrokian, Mendigoitxi baserriko hilobia zegoen. Igandeko mezan,

hilobia mahai-zapi batekin estali eta bertan kandela edo argizaria pizten zen eta bertatik entzuten zen meza.

35. Agapita, San Andres parrokiako serora

- **Erref:** EIB-699/008
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:12:20. **Bukatu:** 00:14:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Aspaldi, Pazko-astean ogia bedeinkatu eta serorari ("sakristana") oparitzen zitzaion, ume asko izaten zituelako bere gain. Agapita "sakristana"ri buruz hitz egiten dute.</p>

36. Arrateko Amaren estandarte prozesioetan

- **Erref:** EIB-699/009
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:14:42. **Bukatu:** 00:16:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

<p>Arrateko Ama Birjinaren prozesioetan, estandarte zeintzuk eramaten zuten aipatzen du Mariasunek.</p>

37. Azitain parrokiako abadeak eta abuztuko jaiak

- **Erref:** EIB-699/010
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:16:51. **Bukatu:** 00:17:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Azitaingo parrokiako Felix Bergara abadearen sermoiak. Meza ostean musika egoten zen. Andramarietako jaietan, meza, herri-kirolak, umeentzako jolasak... egoten ziren.</p>

38. San Martin ermitan elizkizunik ez

- **Erref:** EIB-699/012
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:20:18. **Bukatu:** 00:21:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>San Martin ermitan ez dute erromeriarik eta mezarik ezagutu. Aspaldi meza egoten zen eta Mendigoitxi baserrian bazkaltzen zuten herriko pertsona garrantzitsuek (alkateak, zinegotziak, abadeak...)</p>

39. Mendigoitxi baserria, San Martin ermitaren jabea

- **Erref:** EIB-699/013
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:21:28. **Bukatu:** 00:24:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Mendigoitxi baserrikoak dira San Martin ermitaren eta alboko San Martin baserriaren jabeak.</p>

40. Herriko zorrak, baserritarren eskuetan

- **Erref:** EIB-699/015
- **Iraupena:** 0:07:03. **Hasi:** 00:25:23. **Bukatu:** 00:32:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » XIX. Mendea
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

<p>XIX. mendearen azken laurdenean Eibarko Udalak zituen diru zorrak baserritarren menpe geratu ziren eta batzuek baserriak saldu behar izan zituzten. Bizenteren amonak, zorra kitatzeko, ikatza saltzen zuen. Umetan ikasi zuen inguruko ikazkinekin. Ikazkinaren lana oso gogorra zen.</p>

41. San Martin ermitaren berriztatzeak

- **Erref:** EIB-699/017
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:33:16. **Bukatu:** 00:35:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>San Martin ermitak harrizko arkuzko atea dauka. Gerra garaian pareta bat zulatu zen eta bloke batzuekin estali zuten. Teilatua ere berritu zioten. Ermita kalitate oneko materialez eginda dago eta paretak oso lodiak dira.</p>

42. Gerratean, Mendigoitxi ospitalea izan zen

- **Erref:** EIB-699/021
- **Iraupena:** 0:05:04. **Hasi:** 00:42:40. **Bukatu:** 00:47:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Gerra garaiko bonbetatik babesteko kobazulo bat dago San Martin ermitan. Mendigoitxi baserria berri eta gerra hasi zen eta milizianoek hartu zuten baserria, ospitale bezala erabiltzeko. Inguruko baserri guztietatik hartu zituzten koltxoak, oihalak, izarak... Asturiasko miliziano talde bat zegoen ganbaran eta baserriko eskailera suntsitu zuten, inor bertara ez igotzeko.</p>

43. San Martin ermitan lurperatzerik ez

- **Erref:** EIB-699/022
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:47:44. **Bukatu:** 00:48:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

San Martin ermitan eta inguruetan ez dago lurperatzerik. Felix Bergara abadea ibili zen bila.

44. Aginagako elizan, aldare azpian hildakoen errautsak

- **Erref:** EIB-699/024
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:49:37. **Bukatu:** 00:51:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Aginaga auzoan, norbait hiltzen denean, aldarearen azpian errauts pixka bat botatzen da eta beste dena kanposantuan lurperatzen da. Aspaldiko ohitura da.</p>

45. Mendigoitxi baserriaren berriztapenak

- **Erref:** EIB-699/028
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:58:32. **Bukatu:** 01:01:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>San Martin ermitan meza egoten zenean, alkateak, abadeak eta bestelako pertsonaiek Mendigoitxi baserrian bazkaltzen zuten. Baserria 1934an berriztatu zen, sute batek suntsitu zuelako. Gerra ostean, berriz ere berriztu behar izan zuten, milizianoak bertan egon zirelako.</p>

46. Arrateko pausoen ibilbideko santutxuen kondaira

- **Erref:** EIB-699/031
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:03:18. **Bukatu:** 01:04:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Arrateko Pausoen kondaira kontatzen du Mariasunek. Ama Birjinak atsedean hartu zuen lekuetan eraikitakoak omen dira. Santutxuen kokalekuak zeintzuk diren eta nola apainduta dauden azaltzen dute.</p>

47. Maalako ermita

- **Erref:** EIB-699/034
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:06:44. **Bukatu:** 01:08:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Maalako ermita, ez dute ermita bezala ezagutu. Jausita zegoen eta orain etxe bat dago ermitaren plano berdinean eraikia.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com